

- Familia ugarien babeserako aspektu garrantzitsuen arauketari dagokionez, guztiz garrantzitsua da EA Eren esparruan familia horiei aitortutako onurak errespetatu nahi ez dituztenei zigorrak ezartzeko ahalmena edukiko duen erakundea nor izango den zehaztea, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean sortu den eskuduntza-auzi negatiboa ikusirik.
- Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak aldundiei eskuduntza horiek berain gain har ditzatela errekeritu ondoren, Ebazpen Batzordearen eskuetan jar dezala gaia behin betikoz argitu dadin.

Azaldu den guztiagatik, Arartekoaren ustez Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek hemen aipatu diren gaiei erantzungo dien arau bat onartu beharko lukete, antolamendu juridikoak era horretara hiritarren eta horiek osa ditzaketen familia ugarien eskubideak defendatzeko tresna bat gehiago edukitzeko bidea eginaz.

7.4. HAUR-HEZKUNTZA ETA FAMILI ETA LANBIDE ARDUREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Sarrera

Haur-hezkuntzari buruzko kexen tramitazioen bidetik erakunde honek bidezkoa ikusi du eskolatze goiztarreko adinean dauden haurrekiko konpromezu argia eskatzen duten gizarte premia berriei buruzko gogoetarako dei bat egitea.

Arartekoari planteatu zaizkion kexa gehienek, arian-arian bi urteko haurrentzat irekitzen ari diren eskola-gelen bidetik sortu diren aspektu oso zehatzak planteatu dituzte. Beste kasu batzuetan, ordea, erakunde honen bitartekaritza eskatu da hezkuntza-etapa honetako, alegia 0-3 urte arteko haurrentzako lehen zikloa etorkizunean indarrean sartzen denerako erreferentzia argirik ez dagoelako. Horren bidetik arazo handiak ikusi dira, besteak beste ondorengoak: hezkuntza-maila honen programazio orokorra, dauden giza baliabideak eta materialak arian-arian irakaskuntza berrietara egokitzen joan beharra, hezkuntza-aro berri hau finantziatzeko aukerak, etabar.

Lehen hurbilketa batean pentsa daiteke adin txikiko haurrekiko atentzioa eskola ikuspegi hutsetik planteatu behar dela. Noski, gai batzuk ikuspegi horretatik bakarrik planteatu ahalko dira. Baina, gaurko gure gizartean haurrei eskaini beharreko atentzioaren premia berriak direla medio, kexa horiek planteatzen dituzten hainbat gai ikuspegi askoz globalago batetik aztertu beharra dagoela erakusten dute: horiek famili eta lanbide ardurak bateragarri bihurtzeko beharrekina lotuta daude, eta honek ikasleen eskolatzeak behar dituen beste neurri osagarri batzuk kontuan hartzera garamatza.

Horregatik, famili eta lanbide betekizunen bateragarritasuna lortzeko premia horren bidetik planteatu diren inizatiba esberdinez arduratuko gara jarraian, abiapuntuko baldintza hau finkatu ondoren, eskolatze goiztarreko adinean dauden haurrei eman beharreko atentzioari buruzko eztabaida zuzen kokatzeko.

1. FAMILI ETA LANBIDE ARDURAK BATERAGARRI EGITEKO BEHARRA

1.1. Testuinguru soziolaborala

Azken urteotan aldaketa handiak gertatu dira gure gizartearen antolaketan eta egituran. Aipatzekoak dira esparru ekonomikoan eta bilakaera demografikoan egon diren eraldaketak, eta familien estruktura eta bizitza moduetan egon diren aldaketak.

Enplegua 25 eta 49 urte arteko biztanlegoan kontzentratu da, hain zuzen familia erantzukizun handienak dauden biztanlegoko multzoan.

Biztanlegoko sektore horren enplegu tasa oso handia da gizonen artean, eta emakumeen okupazio maila handitzen doa, lan merkatuan sartu berria dela kontuan hartu behar baita.

Aldi berean, famili unitateak gero eta zaituagoak daudenez gero, guztira orain famili kopuru handiagoarekin topo egiten dugu.

Arrazoi horiek guztiek arazo handiak planteatzen dituzte lan merkatuaren esijentziak famili ardurekin bateratzeko orduan, azken horiek tradizionalki familia barruan konpondu baitira, batez ere emakumeen eskutik, estereotipo soziokultural baten arabera famili eta etxeko lanetarako emakumeak bokazio eta betekizun handiagoa zeukalako.

Alabaina, azpimarratu behar da lanbide eta famili ardurak bateragarri egiteko premia hori ez dagokiola emakumeari bakarrik. Berdin eragiten die gizoni eta emakumeei, hauek lan merkatuan sartzea lortu ondoren famili ardura biek hartu behar dutelako beren gain.

1.2. Europako Batasunaren inizatibak

Europako Batasuna esplizituki konprometitu da gizon eta emakumeentzako aukera berdintasun printzipioarekin.

Europako Batasunak hasiera-hasieratik aitortu zuen lana eta haurren zainketa bateratzea funtsezkoa zela gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko, haurren zainketaren ondorioz sortzen diren arazoek sexuen arteko tratu berdintasuna nabarmen oztopatzen dutelako.

Horregatik, Emakumeen Berdintasunerako II. Egitarau Komunitarioaren barruan Haurren Atentziorako Sarea sortu zen 1986an, aukera berdintasunerako politika martxan jartzeko dauden zortzi sareetako bat delarik.

Aurrerago, Aukera Berdintasunerako III. Egitarauan, sare horri "Haurren atentziorako eta gizon eta emakumeen lan eta famili ardurak bateratzeko beste neurri batzuen sarea" izena eman zitzaion, eta deitura aldaketa horrek, lan eta famili ardurak bateragarri egitea lortzeko haurrentzako zerbitzuak beharrezkoak baina nahikoa ez direla isladatzen du.

Aukera Berdintasunerako III. Egitarau honen zati gisa, Kontseiluak haurren zaintzari buruzko R (92) 241. Gomendioa onartu zuen, zeinetatik ondoko aspektuak azpimarratu behar baitira:

- Seme-alaben zainketak dakartzan lana eta ardurak bateratzeko helburu zabal bat jasotzen du, horien premia guztiei eskola aroan erantzuten saiatzea komeni dela adieraziaz.
- Bestalde, hurrekiko atentziorako helburu zabal horrek inizatiba ezberdinak batuko dituen politika global bat behar duela ere esaten du. Horrela, haurrentzako zerbitzu berezietan gain, gurasoentzako baimenak indartzeko premia, lantokiek seme-alabak dauzkaten gurasoen beharrei erantzutea eta, azkenik, familia ardurak gizonen eta emakumeen artean bana daitezkeen sustatzeko premia ere planteatzen du.
- Gomendio honek, aurreko inizatibak martxan jartzeko orduan ardura guztiena dela dio (administrazio ezberdinak, gizarte alor ezberdinak, nola enpresarioak hala langileak, etabar), eta bateragarritasuna lortzeko elkarlanaren premia azpimarratzen du.
- Azkenik, printzipio garrantzitsu eta helburu berezien alde agertzen da: kalitatezko atentzioa ikuspegi pedagogikoarekin konbinatzea, premia bereziak dauzkaten haurrentzako laguntza, zerbitzuak nekazari esparruetara hedatzea, zerbitzuen malgutasun eta eskuragarritasuna, etabar.

1.3. **EAEko inizatibak**

Aipatu berri ditugun inizatiba komunitarioen bidetik, Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiborako II. Planak ere famili eta lanbide arduren bateragarritasuna planteatzen du lehentasunezko iharduera esparru gisa.

Plan honek ere famili eta lanbide ardura horien arteko bateragarritasuna erraztuko duten baldintzak hobetzeko neurri zehatzak proposatzen ditu, Europako Batasunean dagoeneko proposatuta dauden neurriei jarraituz. Horrela, famili ardurak emakume eta gizonen artean banatzearen edo biek partaidetza orekatua edukitzearen, eta egungo gizarte antolaketatik eratorzen diren beharrei erantzun egokia emango dieten komunitatearentzako zerbitzuak garatzearen aldeko sentsibilizazio kanpainaren apostua egiten du.

Emakundek aurkeztu berri du komunitatearentzako eta familientzako zerbitzuei buruzko txosten berezi bat, eta bertan zerbitzu batzuen diagnosis jasotzen da (haur-eskolak, eskola-jangelak eta pertsona helduentzako zerbitzuak), eta testu horretara mugatuko gara zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun daukaten egoerari buruzko datuak eskaintzerakoan.

* * *

Famili eta lanbide ardurak bateratzeko egokitasuna azpimarratu nahi izan duen lehen atal hau laburbilduz ondorio hauek azpimarra ditzakegu:

1. Gaurko gizarte antolaketatik eratorzen diren premia berezietan famili eta lanbide arduren bateragarritasuna eskatzen dute.
2. Bateragarritasun hori ondorengo inizatiba edo ihardunbideen bitartez lortu behar da:

- 2.1. Haurrentzako zerbitzu bereziak martxan jartzea.
 - 2.2. Gurasoentzako baimenak bultzatzea.
 - 2.3. Lantokiak famili ardurak dauzkaten gurasoen premietara egokitzea.
 - 2.4. Famili ardurak gizon eta emakumeen artean bana daitezzen sustatzea.
3. Aurreko neurriak edo ihardunbideak osagarriak dira, beraz gutxienezko bateragarritasunak guztiak arian-arian martxan jartzea eskatzen du.
 4. Aldi berean, neurri hauen heterogeneitateak guztien arduraren, eta ondorioz bertan sartuta dauden agente guztien lankidetzaren beharra dakar (administrazio ezberdinak, gizarte inizatibak...).

2. HAURREN BEHARRENTZAKO ATENTZIO ZERBITZUAK

2.1. Kalitatearen gutxienezko mailak

Iniziatiba komunitarioaren berri eman denean aipatu den Haurrentzako Atentzio Sareak Aukera Berdintasunerako III. Egitarauaren barruan txosten bat osatu du, eta Haurrentzako Atentzioari buruzko R (92) 241. Gomendioan haurrentzako zerbitzuei buruz aipatzen den bidetik helburu batzuk jasotzen dira.

Sare honen iritziz, helburu horiek hamar urteko epean (2006. urte aldera) lor daitezke Europako Batasunean.

Txostenean Komunitateko herrialdeek haurren atentzioari zuzendutako politika garatzea komeniko litzatekeela esaten da, azken finean haur guztiei kalitate handiko zerbitzu malgu eta koherentez baliatzeko bidea eman beharko liekeelarik.

Horrela, haurrentzako zerbitzuentzat oinarritzko printzipio eta helburuak zehaztu behar dira, horien arabera definitutako baliabideen barruan iharduera zehatzak garatu beharko liratekeelarik.

Eraketa ekonomikoari dagokionez, herrialdeek Barne Produktu Gordinaren (BPG) gutxienez %1eko finantziaketa publikoa onartu beharko luketela irizten da, haurrentzako zerbitzu horietan egindako inbertsio publikoek gizarte, ekonomia eta hezkuntza mailako onura garrantzitsuak dakartzatela irizten delako, eta onura horiek haurrek, familiek eta gizarte osoak jasoko lituzkete.

Are gehiago, zerbitzu horietan egin beharreko inbertsio publikoaren gastu osoa ez litzateke ezta BPGren %1era ere iritsiko, errentak igo eta gizarte ongizateko gastuak jaitsi egingo liratekeelako.

Alabaina, gurasoek ere ordaindu beharko lituzkete dauzkaten irabazi garbien eta beste zertzelada babesgarri batzuen arabera, baina ordaindu beharrekoak ez luke familien irabazi garbien %15 baino gehiago izan beharko.

Zerbitzuen tipologiari dagokionez zera esaten da, zerbitzu publikoek 3 eta 6 urte arteko haurren artetik %90arentzat eta hiru urte baino gutxiagokoen %15arentzat denbora osorako plazak eskaini beharko lituzketela.

Zerbitzu ugaritasunaren aldeko apostu garbia egiten da, gurasoek nahiago dutena aukera dezaten, eta baita malgutasunaren aldekoa ere gurasoen laneko betebeharrak bateratzeko aukera eman dezaten.

Txostenaren arabera, beharrezkoa da zerbitzu horiek pluraltasunaren balorearen alde jokatzea eta hizkuntza, etnia, erlijio, genero eta elbarritasunagatiko dibertsitatea beren gain hartzea.

Zerbitzu horiei dagokienez, haur eskolek egun osoko ordutegia eduki behar dute, hori beraien antolaketa normalean edo eskola orduz kanpoko zerbitzu osagarri gisa planteatuaz, lana egiten duten gurasoen eskura egon daitezen.

Bestela, eskola orduz kanpoko zerbitzu hori ematen ez bada alegia, beste zerbitzu paralelo ez integratuak behar dira, hain zuzen lan beharreatik familiek dauzkaten beharrei edo behar sozial handiak dauzkaten umeei erantzuteko.

Haurrentzako zerbitzu kolektiboek hezkuntzaren filosofia esplizitua eduki behar dute, tolerantzia gain haurren autonomia, haurren eta horien eta helduen arteko elkarbizitza soziala sustatu behar dituztelarik. Era berean, beste ikasgai hauek ere eduki beharko lituzkete: hizkuntz teknikak, zenbait kontzeptu matematiko, biologiko, zientifiko, tekniko eta ingurugiroari buruzkoak eta trebetasun estetikoak eta artistikoak.

Zerbitzu horien zuzkidurei dagokienez, haurren adinaren eta atenditu beharreko haur-taldearen arabera horiek zaintzeko plantila-ratio zehatzak iragartzen dira.

Zerbitzu horietako pertsonalari buruz, horientzako lan baldintza egokiak eta egokitzapen jarraitua bermatuko dien etengabeko prestakuntza azpimarratzen dira, zerbitzuak kalitate handikoak izan daitezen.

Zentzu honetan hau da proposatzen dena: hurrekin zuzenean (bai eskoletan eta baita familientzako laguntzetan ere) lana egingo dutenen artetik %60ak doaneko prestakuntzarako aukera eduki behar dute, pedagogiaz eta haurren garapenez prestakuntza maila egokia eskura dezaten.

Txostenak aipatzen duen beste puntu bat haurrentzako zerbitzu horiek eratzeko eraikinei dagokie, osasun eta segurtasun baldintza guztiak bete behar dituztela adierazten duelarik. Eta zehazten du zerbitzu horiek hurrei jolas eta lo egiteko eta lababoak eta komunak, etabar erabiltzeko aukera eman behar diela, eta guraso eta irakasleek beraiantzat lekua ere eduki behar dutela.

Gurasoek haur zerbitzu horiekiko kolaboratzaile eta partaide izan behar dute, eta zerbitzuek, aldi berean, dagokien komunitatearekin edo zonarekin harremanetan egon behar dute.

Azkenik haurrentzako zerbitzu komunitario horien funtzionamendu eta emaitzei buruzko ebaluaketa erregularraren premia aipatzen da.

2.2. EAEko egoeraren balorazioa

LOGSE legea onartu eta gero, haur-hezkuntza beste etapa bat bezala eratu da hezkuntz sistemaren barruan.

Ondoren onartu diren beste arau batzuek hezkuntzako etapa honen hezkuntz edukin edo curriculumarekin zehaztu dituzte (curriculumaren oinarritzko aspektuei buruzko irailaren 6ko 1.330/1991 ED eta EAEko ikastegiatarako oinarritzko curriculumarekin abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretua), eta irakaskuntza

horiek banatuko dituzten eskolek irakaslegoaren titulazioa, irakasle/ikasle ratioak, ikastokiak, eskola plazak, etabar bezalako gaietan bete behar dituzten gutxienezko baldintzak finkatu dituzte (uztailaren 14ko 1.004/1991 ED).

Esan daiteke, beraz, Europako Batasunak Haurren Atentziorako Sarearen bidez ezarritako kalitate neurri asko behar bezala definitu direla.

Alabaina, gizarte premia berrien arabera -horiek arian-arian martxan jartzeko eskatzen baitute- haurrentzako atentzio zerbitzuak behin betikoz oraindik egituratu gabe jarraitzen dute.

Ezbairik gabe, Euskal Autonomi Erkidegoan hezkuntzako agintariak egon behar dute haur-hezkuntzako lehen zikloa indarrean sartzeko eta osatzeko prozesuaren buruan, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legean zero urtetik aurrerako eskolatzeko eskariari pausoka erantzuteko agindua agintari horiei ematen baitzaie.

Lege horrek berak, aipatu helburua lortzeko funtzionamendu pauta garbi bat ere ezartzen du, administrazio eta agente sozial ezberdinekin lankidetzako espreski planteatzen duenean.

Erakunde honen ustez, elkarrekin lan egiteko behar premia hori maila oso zehaztuta gauza daiteke, esate baterako eskolatzeko premien planifikazioan edo programazioan. Eta hori ez egiteak, Eskola Publikoaren Legeak agintzen duen iharduera pautan hori ukatzea, eta planifikazio lan honen ezaugarri nagusia, alegia eragindako sektore guztien partaidetza alde batera uztea esan nahiko luke.

Guzti horregatik, hezkuntza maila honetako zerbitzu- eskaintzaren programazioan gure ustez funtsezkoa da ez bakarrik eragindako agenteen partaidetza ahalbidetzea, baina baita programazio hori gaur egun dauden ikastegi guztiak kontuan hartuz egitea ere.

Aldi berean, beste administrazio batzuen menpe dauden edo gizartearen inizatibaz sortu diren zentro horien finantzaketa aukerak ere aztertu behar dira, baldin eta hezkuntza administrazioaren sareko zentro publikoek eskolatzeko premia horiei erantzuten ez badie.

Eta baita ere esan behar da, adin txikiko haurrekiko atentzioa, haur eskolatzeko adina gainditu eta lehen hezkuntzan daudenak barne direlarik, ezin dela hezkuntza-aspektu hutsetara mugatu.

Hezkuntzako ziklo edo etapa bakoitzerako ezarritako dauden helburu pedagogikoei dagokien eskola atentzioa soila bete ondoren beste era bateko atentzioa eskaini behar da: eskola orduetatik kanpo behar duten ume guztiei behar adinako dedikazioa eskainiko dien atentzioa alegia, ikasle horien gurasoen famili eta lanbide betebeharrak benetan bateragarriak izan daitezten. Horrela, gauza jakina da eskolako ordutegia eta egutegia familiek nekez konpon ditzaketen arazoak direla.

Beraz, ikastegiak beraiek, LOGSEk markatzen dituen helburu pedagogikoekin bakarrik lotzen den hezkuntza-atentzioaren osagarri gisa eskola orduz kanpoko atentzioa eskaintzeko aukera ikusi beharko lukete, azken horrek eskola komunitateko familien arduren arabera malguta izan beharko lukeelarik.

Azken batean, lanbide betekizunak dauzkaten guraso askok ere osatzen duten hezkuntz-komunitatearen premien zerbitzura ikastegiak espazio balioanitz gisa erabiltzea litzateke kontua.

Bestela, azken premia horiek asetzeko beste zerbitzu komunitario eta osagarri batzuk beharko lirateke, eta horiek ere lehen aipatu diren Europako Batasunak Haurren Atentziorako Sareak osatutako kalitate estandarrak bete beharko litzukete.

3. Ondorioak eta proposamenak

- 3.1. Haurren premientzako atentzio zerbitzuek, egungo hezkuntz-sisteman ezarritako helburu pedagogikoak lortzeaz gain, gizartearen antolaketa berritik eratorritako famili eta lanbide arduren bateragarritasuna ere lortu behar dute.
- 3.2. Beraz, adin txikiko haurrentzat diseinatuko den hezkuntz-atentzioa beste zerbitzu komunitario batzuekin osatu behar da, ikastegietatik edo esperientzia berrietatik lan betekizunak dauzkaten gurasoen premiei erantzun diezaieten.
- 3.3. Haurrentzako azken zerbitzu mota horiek osagarriak izango direnak eskola komunitateko kideen famili eta lanbide arduren arteko bateragarritasun premia ikusten den hezkuntz-maila guztietara hedatu behar dira, eta, beraz, ez dute mugatu behar zero eta sei urte arteko haur-hezkuntzako hezkuntz-etapara bakarrik.
- 3.4. Haurren premiei eman beharreko atentzioari buruzko ikuspegi global hau iharduera estrategia zehatz guztietan eduki behar da kontuan, hau da, premien programazioan, giza baliabide eta materialen egokitzapenean, finantziaketa sistemetan, etabar.
- 3.5. Horrek, aldi berean, hurrekiko atentzioan interesa daukaten administrazio eta agente sozial guztien koordinazio eta ekintza bateratu bat eskatzen du. Izan ere, haur eskola sare bat sortzeko dagoen eskariari erantzuna ematen lehenengo hezkuntz-administrazioak izan behar badu ere, beste administrazio eskudunek eta gaian interesaturik dauden agente sozialek ere aportazio garrantzitsuak egin ditzakete eta behar dituzte, eta ez hezkuntzari dagokionean soilik, baizik eta batez ere oraindik behar bezala esploratu gabe dauden zerbitzu osagarrien alorrean.

7.5. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAN IPI-NITAKO MUSIKA APARAILUEK SORTUTAKO KUTSADURA AKUSTIKOAREN KONTROLA

Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari aurkeztu dizkion txostenetan, urtez urte ikusi da salaketa asko egiten direla hiriko iharduera sailkatuetan (normalean, bizitexetako beheko solairuetan dauden ostalaritza establezimenduetan batez